

PARTE HARTZE BATERATUKO DEIALDIA Z- ZULIEFERMESSE 2021 ONLINE - 2021 martxoare 2 eta 3a

Data: martxoaren 2-3

Ekitaldia: Z-Zuliefermesse Feria

IZEN-EMATEA

Gipuzkoako Bazkondeak, Espainiako Ganberekin lankidetzan, **Z - ZULIEFERMESSE** ferian parte-hartze bateratua antolatzen du. Azoka *modalitate birtualean* egingo da, **2021eko martxoaren 2an eta 3an**.

Z feria bi urtean behin egiten den feria da, eta industria-azpikontratazioko enpresei zuzendua dago eskusiboki.

2019ko azken edizioan 365 enpresak hartu zuten parte. Horietatik % 73 Alemaniako enpresak ziren. Kopuru txikiagoan, Poloniako, Txekiako eta Italiako enpresek ere parte hartu zuten.

Feria INTEC makina-erremintaren feriarekin batera egiten da, eta bisitari gehiago erakartzen ditu. Bi azoken artean 13.000 erakusketari eta 24.200 bisitari baino gehiago bildu ziren.

Online feria honetan parte hartzea garrantzitsua da Espainiako enpresek Alemaniako merkatuan duten presentziari eusteko. Feria presentzialaren hurrengo edizioa 2023ko lehen hiruhilekoan egitea aurreikusten da.

Izen emate epea 2021ko otsailaren 12an bukatuko da. Parte-hartze baldintzak, epeak edo izen-emateari buruzko informazio gehiago behar baduzu, deskargatu deialdiaren dokumentua.

[DEIALDIA](#)

Informazioa

Ane Aguirrezabala - 943 000 322- aaguirrezabala@camaragipuzkoa.com